



# Hiztegi gintza juridikoaren eskizofrenia: hizkuntzalariak eta legelariak aurrez aurre

ANTXUSTEGI, Maria Begoña

Itzulpen Zerbitzu Ofizialeko kide  
 HAEE/IVAP  
 Adriano VI, 20-2º  
 01008 Gasteiz

BIBLID [1137-1951 (1996), 0: 99-100]

Hiztegi gintzan gabiltzanok eta, batez ere, hiztegi teknikoak atera nahirik gabiltzanok, ezinbesteko dugu hizkuntza-arloko eta kasuan kasuko arloko adituen arteko elkarlana. Eta elkarlan hori ez da beti erraza izaten, hizkuntza-adituak eta arloko adituak lan horren aurrean duten jarrera oso desberdina izaten baita. Hiztegi gintza juridikoa ez da horren salbuespen.

Hona hemen, adibide gisa, zuzenbide arloko adituen artean ikusten ditugun bi jarrera, arazo ugari sortzen dizkigutenak, gainera. Batetik, erdarazko bost hitzen ondoan beste hainbeste ordain edo baliokide nahi ditu legelariak, eta bere arrazoiak izaten ditu horren beharra azpimarratzeko: "erdarazko bost hitz horiek ez dute gauza bera esan nahi", esango digu, edo "ez dira berdin erabiltzen", edo "ez dute denak kasu guztietarako balio". Bestetik, euskaraz ematen diren ordainak "hizkera arruntekoak" iruditzen zaizkio, "gutxi gorabeherako itzulpenak", hau da, segurtasun juridikoaren kontra doazenak, edo "hitz komodinak" direla, "denetarako" erabiltzen ditugula esango digu.

Legelariaren ikuspegitik urruti egoten da, bestalde, filologoarena; sarritan, kontrajarrita ere bai. Lehengo adibidearekin jarraituta, erdarazko bost hitz horiek funtsean "gauza bera" esan nahi dutela esaten dizu inoiz hizkuntza-arloko adituak, bost hitz horiek ez dituztela euskaraz bost ordain behar, bost hitz horien azpian ez daudela bost kontzeptu. Honek ere emango dizkizu bere arrazoiak: "hitz horiek berez, jatorriz, sinonimoak dira", "denbora, erabilera-eremua, hizkuntza-erregistroa edo konbentzioa izan dira ñabardura desberdinak erantsi dizkietenak". Edo, alderantziz, "jatorriz esanahi diferentea zeukaten hitzak gauza bakarra adieraztera iritsi dira, erdaraz bost hitz gorde dira, baina horrek ez du esan nahi euskaraz beste horrenbeste hitz behar dugunik".

## Zer egin euskaraz horrelakoetan?

Baliokideak finkatzeko orduan aukeratu daitezkeen bideen artean hiru, ikusten dut nik, erabiltzen direla gehien. Lehenengoa,

